



EUSKALGINTZAREN  
KONTSEILUA

# EUSKARAZ BIZITZEKO BEHAR DEN DENA

## EUSKALTZALEON MARTXA

EKAINAK **13** > IRUÑEA

ASKATASUN  
ENPARANTZA  
17:00etan

ANTONIUTTI  
PARKEA  
17:00etan

RUNAKO  
PARKEA  
17:00etan

● EKITALDIA  
GAZTELUKO  
PLAZAN

OFIZIALTASUN OSOA · JAUZIA HIZKUNTZA POLITIKETAN · EUSKALTZALETASUNA

# EUSKALTZALEON MARTXA

## EKAINAK 13 > IRUÑEA

Ekainaren 13an Iruñeko kaleak Euskal Herri osoko euskaltzalez betetzeko mobilizazio jendetsua antolatzen ari gara Euskalgintzaren Kontseilua osatzen dugun eragileak, «Euskaltzaleon Martxa» lelopean.

Izan ere, azken hamarkadetan berreskurapen ziklo bat gertatu den arren, gero eta gehiago dira **euskararen etorkizunaren gaineko kezka eta larritasuna** adierazten dituzten datuak eta ikerketak, eta zailtasun horiei erantsi behar zaie euskararen biziberritzearen aurkako oldarraldi antolatu bat.

Hala ere, sinetsita gaude posible dela **euskararen biziberritzeari bultzada ematea**, abenduko ekitaldian aldarrikatu genuen bezala, **Pizkunde berri bat** eragitea, eta horretarako ezinbestekoa dela **euskaltzaletasunaren giharra indartzea**. Horretara dator ekainaren 13ko mobilizazioa, euskaltzaleok antolatuzera, **Euskaraz bizitzeko behar den dena** aldarrikatzera.

**Martxa arratsaldean egingo dugu.** 17:00etan Iruñeko hiru puntu ezberdinetan bilduko dira herritarrak, eta puntu hauetatik Iruñeko kaleak harrotasunez beteko dituzten **hiru zutabeak** abiatuko dira. Zutabeek **Gazteluko Plazan bat** egingo dute eta bertan egingo da ekitaldi politikoa, amaiera berezi bat emanez.

Zutabeetako bakoitzak euskarak behar duen Pizkunderako ezinbestekoak diren hiru oinarrietako bana ordezkatzeko du: **Ofizialtasun osoa, Jauzia hizkuntza politikan eta Euskaltzaletasuna.**

1. Lehenengoa, euskarak Euskal Herriko lurralde guztietan **ofizialtasun osoa** izan dezala aldarrikatzeko duena: Ipar Euskal Herrian koofizialtasuna, Nafarroako euskararen zonifikazioa gainditu eta ofizialtasuna lurralde osora hedatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan oldarraldiaren ondorioz eragiten ari den desofizializazioaren aurrean euskararen normalizazioa blindatzeko duen arkitektura juridiko berri bat.
2. Bigarrena, **hizkuntza politikan jauzi bat** eragiteko asmoz erakundeak, alderdiak eta eragile sozialak interpelatzeko dituen, euskararen ezagutza orokortzeko duten politiken eta erabilera normalerako baldintzak sortzeko dituzten neurrien alde.
3. Eta hirugarren zutabea, **euskaltzaletasunaren** ekarpena aldarrikatzeko duena, azpimarratzeko duena egunerokoan euskaltzale gisa jokatzeko garrantzia eta euskaltzaleak elkarrekin antolatzearen premia.

**Euskal Herri osoko eragile eta norbanako euskaltzale guztiak deitzen ditugu Euskaltzaleon Martxan parte hartzera eta zabalpenean laguntzera.** Mundua euskararen eta euskaldunon aurka datorren honetan, guk euskara dugu munduaren alde.

**Euskaltzaleon garaia da!**